



XaguArtea

2005eko abenduaren 19a

Xagun aldizkaria

0 alea

Zeraindarron aldizkaria jaio da



Zeraindarron berriemaile izan nahi duen aldizkariaren aurrean zaudete. XAGUARTEA artea eta xaguok uztartzen gaituen herriaren, Zerainen, erreferente izateko jaio da. Gure helburua zeraindar denentzat Zeraingo berri ematea da. Horretarako hiler, 3. astelehenean zuen etxeetan izango da XAGUARTEA. Zeraindar denen buzoietara iritsiko da aldizkari hau, Zeraingo etxe guztietan herriko berri izan dezagun.

Aldizkari hau xumea da, herritik sortutakoa. Agenda 21eko diagnosian, hainbat herritarrek komunikazio arazoak zeudela ikusi zuten. Jendeak ez zekiela Zerainen zer egiten zen. Eta horrez gain, herriko talde ezberdinen artean koordinazio eskasa zegoela ere konturatu ginen. Arazo horiekin amaitu nahirik, komunikazio talde bat sortu zen eta aldizkari bat argitaratzea erabaki zuen. Talde horretan gaudenak Elena Mendizabal, Maria Jexux Mendizabal, Arantzazu Muñoa eta Ion Muñoa gara.

Udalak hasieratik babestu eta beregain hartu zuen aldizkariaren gastu ekonomikoa. Beraz, XAGUARTEA herritarren eta udalaren lankidetzaren fruitua da. Ondoren, herriko talde ezberdinei gure intentzioaren berri eman genien eta beren laguntza eskatu. Hilabetero talde horiek beren berri emango dute *Artepetik* izeneko sailean: Udala, Oa kultur elkarte, Liztormendi, Eskola, Kristau elkarte, Basarte guraso elkarte, Zerain dezagun fundazioa...

Herritar denentzako aldizkaria denez, nahitaezkoa da zeraindarron partehartzea. Izena aukeratzeko listak jarri ziren eta haietako proposamen batetik sortu zen XAGUARTEA. Joxe Mari Telleriak irudi eder honekin uztartu zituen xaguak eta artea. Izenak proposatzeko garaiko lankidetzak aurrera begira ere jarrai dezan, zuen guztion laguntza behar dugu. Proposamen guztiak gustu handiz hartuko ditugu. Etorri gugana beldurrik gabe! Artea xagu guztiona den bezala, XAGUARTEA ere denona baita!

Eguberriak: Olentzero dator

Gabon jaiak gertuan ditugu. Herrietako kaleak argiz bete dira eta komertzioak zeinek diru gehiago gastatuko desiatzen daude. Zerainen ere etxe askotan ageri dira Gabonetako apaingarriak eta plazako artea ere aurki argiztatu-ko dute. Zerainen Eguberri jaiak beti izaten dute magia berezia eta festa giro aparta.

Aurten ere Zeraingo kultur elkarteak Gabonetako espiritua Zerain guztira hel dadin nahi dugu. Horretarako Gabon egun berezia antolatu dugu.

Abenduaren 24an, herritar taldea etxez etxe ibiliko gara kantuan urteroko moduan. Horretarako prest dauden denak gustura hartuko ditugu. Utzi lotsak eta etorri denok gurekin Gabonetako euskal kantu zahar-rrak etxez etxe abestera. Entsaioa, ostiralean, 23an, egingo da kultur etxean, iluntzeko 7etan. Ahal duten guztiak bertara joan daitezela nahi dugu. Larunbatean, gabon egunean, goizeko 9etan irtengo gara kantuan. Barbari eta Zeraindik beherako dena



Uharka abesbatzak eta herriko haurrek Olentzerori kantatuko diote. E. MENDIZABAL

pasako dugu goizez. Arratsaldean, 3:30etan irtengo gara plazatik eta Aizpeatik hasita, gainontzeko herri dena pasako dugu. Biltzen den dirua, urtero bezala erdi bana egingo da: erdia kultur elkartearentzat izango da eta beste erdia Katekesirako izango da.

Iluntzeko 7ak aldera ikazkin zaha-

rra iritsiko da Zeraingo plazara: Olentzero. Haurrek eta Uharka abesbatzakoek kantuz agurtuko dute. Ondoren txikienei opariak banatuko dizkie eta denentzat gaztaina erreak eta ardoa ekarriko ditu. Urteko gaurik magikoarenen aurretik, Olentzero Zerainen izango da, xagu denei bisita egiten.

Udala

Udaleko langileak

Udaletxeetan geroz eta lan gehiago izaten denez, Zerainen ere Miren Ugalde, bertako administratiboa, denera iritsi ezinik zebilela eta, abenduaz geroztik egun osoan arituko da bertan lanean. Baina horrek ez du jende aurreko ordutegian aldaketarik ekarriko, orain arteko ordutegia mantenduko da: 11:30etatik 14:30etara, gainerako orduetan bulegoko lanetan ariko da soilik.

Xabier Dorronsoro 2000. urtetik Zeraingo udalean lanean ari da eta abenduaz geroztik funtzionarioa da. Udaberrian Zeraingo udalak lan anitzetako langile batentzat lanpostua atera zuen. Oposaketa honetarako 12 lagunek izena eman bazuten ere, 8

bakarrak aurkeztu ziren. Bi zatitan egin ziren azterketak: teorikoa eta praktikoa. IVAPEko eta Udaleko ordezkariak osatu zuten aztertzaile taldea. Bietan Xabierrek atera zituen puntu gehien, beraz errekurtsio epeak pasa eta gero, abenduaren 1az geroztik Xabier Dorronsoro funtzionario izendatu dute.



Liztormendi

Olentzero saria

Gabonetako jai hauen baitan, Liztormendiko bolatokian sari berezia jokatuko da: Olentzero saria hain zuzen. Datorren igandean, abenduaren 18a, izango da bolatea. Goizez 10etatik 11:30etara eman beharko da izena eta arratsaldez berriz, 4:30etatik 5:30etara bitartean.

Irabazlearentzat 60 euro eta Olentzero bikain bat egongo dira. Bigarrenarentzat, 45 euro eta Olentzeroren irudia. Eta hirugarren eta laugarrenek diru saria izango dute. Zortetik onena opa diegu herriko bolariei, eta ea Olentzeroak herriak geratzen diren.

Liztormendiren izenean, Eguberri on! eta urte berria ondo hasi!

Gazteak



Aurten ere gazte asko bildu ginen barrikotean. MUÑOA

L arunbata, abenduak 10. Iluntzeko 9ak aldera edo. Sozidatean ez da toki gehiegi. Dena beteta dago eta zaharrenak ez ditu 30 urte baino askoz gehiago. Mostradorean kupela bat dago, garagardoarentzat erabiltzen diren horietakoa. Baina barruan sagardoa dago. Atetik kanpora hotz da, baina gaztainak erretzeko egindako suak berotatu

sunatu ematen du. Hauxe da Zeraingo gazteon BARRIKOTEA.

Afaria ederki joan zen; umore ederrean jan genituen haragia eta gaztainak sagardo berriarekin lagunduta. Afalostea asko luzatu zen gehienontzat eta parrandak berandura arte iraun zuen. Animatzaile izan genuen DJ Bull, musika jartzailea. Eskerrik asko guztion partez Bull!

Herri eskola

Gabonetan kantari

G abon garaia garai berezia izaten da dudarik gabe txikitxoentzat. Zeraingo gure eskolan ere, giro berezia antzematen da Eguberri atarian. Haurrak ilusioz eta itxaropenez beteta daude. Irrifarrea ezin dute kendu ahotik.

Gabon egunaren aurretik, herri- eskolan kantuak entsaiatzen, gabonetako apaingarriak egiten, edo jaiotza jartzen aritzen gara. Emozioz gainezka aritzen dira umeak lanean.

Eta azkenean iritsiko da egun handia: abenduaren 24a. Goizeko 9:30ak aldera irtengo gara plazatik haurrak, gurasoak eta irakasleak. Etxez etxe ibiliko gara kantuan eta eskean. Zerain gunea eta inguruko etxeak pasako ditugu eguerdi artean. Urtero diru asko biltzen dugu eta diru hori oso baliagarri izaten dugu urtean zeharrerako. Horregatik, alde zuzenetik eskerrak eman nahi



Oso dotore egongo dira umeak. ESKOLA

dizkizuegu herritar guztiei. Umeen ilusioa eta bizi poza etxe guztietara zabaldu nahi dugu Eguberrietan.

Gabon zoriontsuak pasa ditzazuela denok eta gure haurrak kantari doazenean bihotza alai diezazuela!

Kristau elkarteak

Eguberriak

Eguberrietan, Jainko gizon eginen etorreraren jaiaren, Zeraingo kristau elkarteak zoriona eta bakea opa dizue denoi! Gabon jai hauek igaro ditzagula elkarrekin zorionean eta bakean.

Ia amaitu da urtea, eta kristau elkarteak urteko ekintzen eta diru kontuen berri eman die Zeraingo eliztarrei karta batzuetan. Era berean, laguntzatxo eskatu die urteroko moduan. Datorren urtean, sakristia-ko teilatua konpontzeko asmoa dugu, premia larria baita. Horregatik denon laguntza beharrezkoa da.

KZ gunea

KZ gunearen ordutegia honakoa da: Asteleheneetik ostiralera: 10:30-13:30 eta 15:30-18:30 (giltza Mandio). Tutorea abenduaren 29an etorriko da: 10etatik 12etara.

Guraso elkarteak

Eguberrian zinema

Gabonetako oporretarako ondorengo bideo emanaldiak antolatu ditu Guraso elkarteak Maixunen emateko:

- * **Abenduak 26, astelehena: 18:30**
Periko eta Benjamin untxien ipuina.
- * **Abenduak 27, asteartea: 18:30**
-Filomenaren untxikumeak eta arratoi pinpirin anderea.
-Bi sagu bihurri eta Johnny kaletarren ipuina.
- * **Abenduak 28, asteazkena: 18:30**
-Samuel bibote jaunaren ipuina
-Tomas katakumea eta Karlota ahatea
- * **Abenduak 29, osteguna: 19:00**
-2005eko aste kulturalari buruzko bideo emanaldia denentzat.
- * **Abenduak 30, ostirala: 19:00**
-2005eko Zeraingo jaiak bideo emanaldia denentzat.

OHARRA: Arazo teknikoak direla eta, ezin izan dugu guraso elkartearen informazio osoa eman

Otatza sagardotegia

Urtarrilaren 13an irekiko dute txotxa Otatzen. Handik aurrera ateak irekita izango ditu Zeraingo sagardoaz gozatu nahi dutenentzat. Ea sagar urte baino, sagardo urte hobea den.

Babesetik

| AZAROA | astelchena | asteartea | asteazken | osteguna | ostirala | larunbata | igandea |
|--------------|------------|-----------|-----------|---------------------|-----------|-------------|-----------|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| Euria (l/dm) | | 0 | 0 | 5 | 10 | 0 | 0 |
| C° altuena | | 22,4 | 18,6 | 19,1 | 13,8 | 13,9 | 14,4 |
| C° baxuena | | 9,6 | 17 | 17,2 | 11,5 | 3,5 | 3,8 |
| | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| Euria (l/dm) | 0 | 0 | 5,1 | 6 | 0 | 15 | 32 |
| C° altuena | 14,9 | 16,7 | 11,3 | 11,7 | 11,7 | 11,2 | 8,4 |
| C° baxuena | 5,9 | 8,7 | 6 | 6,8 | 3,9 | 7,2 | 6,7 |
| | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| Euria (l/dm) | 2 | 40 | 11 | 8 | 0 | 0 | 0 |
| C° altuena | 11,2 | 10,9 | 11,5 | 11,5 | 10,3 | 12,7 | 13,5 |
| C° baxuena | 7,3 | 8,4 | 9,5 | 6,5 | 7,2 | 3,5 | 10 |
| | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| Euria (l/dm) | 0 | 0 | 0 | 4 | 40 | 20 (elurra) | 29 |
| C° altuena | 15,5 | 11 | 8,1 | 7,5 | 7,5 | 5,2 | 3 |
| C° baxuena | 11,7 | 3 | 2,5 | 4 | 5,2 | 0 | 0 |
| | 28 | 29 | 30 | | | | |
| Euria (l/dm) | 0 | 18 | 21 | GUZTIRA: 312 litro | | | |
| C° altuena | 5 | 8,1 | 7,7 | ALTUENA: azaroak 1 | | | |
| C° baxuena | -1 | 3 | 4,4 | BAXUENA: azaroak 28 | | | |

Galtzen ari diren hitzak

Hitzak ez dira betiko. Jaio egiten dira, noizbait eta nolabait. Ibiliarekin zabaldu egiten dira jendartean, esanahia ere gutxi-asko aldatuz, eta urteen joanean indarra galdu egiten dute zenbaitetan. Baztertuz joaten dira, hiztunen ezpain-lumetatik. Edadeko jendeak, eta galduz doazen ofizioetan dihardutenak, izaten dira maiz hitz horien azken erabiltzaile trebeak. Gazteek, ofizio eta bizimodu berrikoek, gutxitan entzuten dituzte halako hitzak, eta gutxiagotan erabiltzen. Eta azkenean, inork erabiltzen ez dituelarik, galdu egiten dira. Hiztegietan bila litezke handik aurrera, baina ez eguneroko hizketan.

Askok ditu euskarak, halako hitzak. Azkueren hiztegian edota OEHN (Orotariko Euskal Hiztegia) xuxen asko bilduak daude, baina handik kanpora hilik dautza edo herio bidean doaz. Horrelako zenbait hitzen berri eman nahi luke XAGUARTEAK, atal honetan.

Izausi

Izausi hitzarekin hasiko gara gaurkoan, Otatzako Elenaren zerrendari bere horretan eutsiz.

Honela azaldu dit Elenak, aurreko batean, Zeraingo hainbati entzundakoa: "lurrean edo azalean lehorragatik egiten den ebakie, hori da **izausie**". Garbiago esanik, **izausie** idatzi du berak.

Zer diote liburuek eta hiztegiek, hitz horretaz? Elena ez dabilela bate-re oker. Hitzari forma asko eman izan zaizkio (*izasi, izazi, itzautzi, itzasi, itzatz, itsasi, itsatsi,...*). Esanahi nagusia bakarra du, ordea: gaztelaniazko *grieta* edo *hendidura*. Hots, euskarazko *artesia* edo antzeko zerbit. Bi eratakoak izan litezke *grieta* edo *hendidura*

ra horiek: larru-azalekoak batetik, eta lur-azalekoak bestetik. Batean *grietas de los pechos, grietas de las manos* adierazi ohi da hitz horrekin, eta bestean *abrirse la tierra por efecto de la sequía*. Zentzu figuratuan, azkenik, esangura zabaldua ematen zaio *hendidura* horri: sentimenduen alorreko *pitxada* edo antzeko zerbit.

Ikus ditzagun adibide batzuk, Azkueren hiztegitik edo *Orotariko Euskal Hiztegitik* hartuak. Hasteko, har dezagun Tolosan jasotako adibide hau: "**Etxe batean armiarma-sareak eta autsa ta itzasiak edo artesiak agiri diranean**". Orixe-rena da, berriz, beste adibide hau: "**Itzasi bedi lurra ta erne beza gure Osasuna**". Gandiaga poetarena dugu, berriz, hirugarren adibide hau: "**Suak et'e-**

kaitzak / beztuta sarraski / itzasi ta zarpil, / Jorralgo elorri". Goierriar baten adibideaz amaituko dugu gaurkoan: Zaldibiko Lardizabalen adibideaz, hain zuzen. Orain dela 150 urte argitara emandako *Testamentu Zar eta Berriko Kondairan*, honela dio Lardizabalek: "**Suiaren onak aitagiarrabaren biotzean itzautzi andiak idikitzen zituen**". Azkuek honela itzuli zuen bere esamolde hori: "el bienestar del yerno abría grandes grietas en el corazón del suegro".

Horra beraz euskal hitz zahar bat, oraindik ere hainbat zeraindarren ezaguna. Bizirik iraungo duen edo ez, geroak esango du.

Gaurkoz aski. Datorren hilean gehiago.

Mikel Zalbide